

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

LURRALDE OREKAREN ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN SAILA

186/2026 Erabakia, martxoaren 24koa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea estatu gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako Arabako Lurralde Historikoko lanpostu hutsak betetzeko 2024-2025eko lehiaketa bateratua ebazteari

Arabako Lurralde Historikoan Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hutsak behin betiko betetzeko 2024-2025 lehiaketa unitarioaren izapideak bete dira. Lehiaketa horretarako deialdia Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 14ko 607/2025 Erabakiaren bidez egin zen (2025eko urriaren 17ko ALHAO, 118. zk.), eta erabaki horren bidez onetsi zen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 3ko 713/2024 Erabakia aldatzea (2024ko abenduaren 13ko ALHAO, 141. zk.). Hori dela eta, horretarako eraturako epaimahai bakarra bildu da, zeinak, Arabako Lurralde Historikoari dagokionez, dagokion aktan jasota dauden behin betiko izendapenen proposamenak eta lanpostu hutsen adierazpena egin baititu.

Aurretik esandakoa ikusirik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen bigarren xedapen gehigarriko 7. apartatua eta martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian (estaturako gaikuntza duten Toki Administrazioko funtzionarioen lege araubidea ezartzen duena) ezarritakoaren ondorioz Arabako Foru Aldundiak esleiturik dituen ahalmenez baliatuz, deialdiaren oinarrietan ezarritakoa betez, Lurralde Orekaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatuaren proposamenez eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egin duen bilkuran gaia aztertu ondoren,

ERABAKITZEN DUT

Hutsik deklaratzeko estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostu hauek:

1. MAILAKO KONTUHARTZAILETZA.

Laudioko Udala.

2. MAILAKO KONTUHARTZAILETZA.

Amurrioko Udala.

DIRUZAINZTA.

Amurrioko Udala.

3. MAILAKO IDAZKARITZA.

Artziniegako Udala.

Asparreneko Udala.

Aiarako Udala.

Bernedoko Udala.

Burgeluko Udala.

Iruraiz-Gaunako Udala.

Laguardiako Udala.

Legutioko Udala.

Peñacerrada-Urizaharreko Udala.
Erriberagoitiko Udala.
Donemiliagako Udala.
Gaubeako Udala.
Zambranako Udala.
Zuiako Udala.
Zalduondo - Arabako Lautadako Kuadrilla elkarte.
Aiaraldeko Kuadrilla.
Arabako Errioxako Kuadrilla.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko martxoaren 24a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lurralde Orokaren eta Lurralde Antolamenduaren Saileko foru diputatua

LAURA PÉREZ BORINAGA

Lurralde Orokaren zuzendaria

JAVIER GARCÍA GORBEÑA